

gaz-teak



Ejemplar gratuito

322 Zb
www.getxo.eus

>> 2018ko martxo



ZINEGOAK 2018

WWW.ZINEGOAK.COM

BILBOKO GAYLESBITRANS 15. NAZIOARTEKO ZINEMA ETA ARTE ESZENIKOEN JAIALDIA
15º FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE Y ARTES ESCÉNICAS GAYLESBITRANS DE BILBAO
15th BILBAO INTERNATIONAL GAYLESBITRANS FILM AND PERFORMING ARTS FESTIVAL

ANTOLATZAILEA ORGANIZA

ASOCIACIÓN
ZINEGOAK
ELKARTEA

BABESLE OFIZIALAK PATROCINADORES OFICIALES

berdindu!

Euskadi, espainiar Inperioko
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK COLABORADORES

Euskadi, espainiar Inperioko

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LEHENKARIITZA OZEA ERABILKETA, BIZIKIDETZA ETA LANKIDETZA
KULTURA ETA HEZKUNTZA POLITIKA SAIA
PRESIDENCIA DIRECCIÓN HUMANOS CONVIVENCIA Y COOPERACIÓN
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

B
Bilbao
BILBAO
AYUNTAMIENTO

ILUSTRAZIOA. ILUSTRACIÓN: ANE PIKAZA



Gaugun Gaztelekuan parte-hartzea handitzeko proiektua

Gazteleku zerbitzuaren helburuetako bat 11 urtetik 17 urtera bitarteko gazteen heziketa eta heltzeko prozesuetan laguntzea da. Lan horren eginkizunetako bat haien komunitatean parte hartze- ra bultzatzea da, interesatzen zaien edo haiengan eragina duen guztian, alegia, era horretan hiritar aktiboak eratzen baitira. Lan ildo horretan, martxoaren 9an, ostirala, 17:00etan, ekintza berezi bat antolatuko da Algortako Gauegun Gaztelekuan; erabiltzaile guztiek haien ahotsa hobeto entzunarazteko antolatutako jarduerak diseinatzerakoan, hala nola espazioaren erai- kuntzan zuzenean parte hartzeko aukera hobe emango duen parte-hartze espazio bat sortzeko oinarriak jartzea izango da ekintza berezi horren helburua. Horren guztiaren helburua ere bada gazteek haien aisialdia era osasuntsu eta aberasgarrian eraikitzen laguntzea.

Ekintza 11 urtetik 17 urtera bitarteko gazte guztientzat irekita dago, ohiko erabiltzaileak izan ala ez.

Jarduera antolatzeko Gaztelekuak LEINNe (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) ikasketak eginda dituzten Amaia Gil eta Jokin Jauregizar (Getxo) eta Ainhoa Garayo (Laudio) gazteen laguntza profesionala izango du.

Argibideak: tel.: 944660356 eta posta elektronikoa: gauegungaztelekua@getxo.eus

2018ko JAIK

- San Isidro: Maiatzak 11, 12, 13 eta 15.
- Zubilleta: Ekainak 22, 23 eta 24.
- Andra Mari: Ekainak 23.
- Neguri: Uztailak 6, 7 eta 8.
- Santa Ana: Uztailak 20, 21 eta 22.
- Paellak: Uztailak 22.
- Algorta: Uztailaren 28tik 31ra.
- Romo: Uztailak 29 eta abuztuaren 1etik 5era.
- Portu Zaharra: Abuztuaren 11tik 14ra.
- Ama Mesedeetako: Irailak 21, 22 eta 23.
- San Martin: Azaroak 9, 10 eta 11.

BEKAK SARIAK

* **18 beka gazte artistarentzat Antonio Gala Fundazioan.** 18 eta 25 urte bitarteko gazteentzat beraien lan sormena sustatzeko, hain zuzen ere arte plastikoetan, musikan, literaturan... Bertan zortzi hilabete ematea, 2018ko urritik 2019ko maiatzera, Kordobako Antonio Gala Fundazioko egoitzan. Eskakizunak martxoaren 31ra arte. Informazio gehiago 957 487 395 telefono zenbakian eta info@fundacionantoniogala.org helbidean. Izenematea: www.fundacionantoniogala.org/convocatoria.html.

* **Ingeleseko hizkuntza murgiltze programa trinkoa Espainian,** Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak deituta, Batxilergoko, Lanbide Heziketako Gradu Ertaingo, Arte Plastikoak eta Diseinuko, Kirol Irakaskuntzetako, Musika eta Dantzako eta Hizkuntzetako (gradu ertaina eta aurreratuko) ikasleentzat. 2018ko uztailaren 1etik 29ra bitartean astebeteko egotaldirako, ostatu osoko eta parte hartzeko 2.400 beka izango dira. Aurreko ikasturtea gairiduta edukitzea egiaztatu beharko dute ikasleek, ingelesean gutxienez 7,5eko batz besteko notarekin. Gehienezko zenbatekoa 900€. Eskara Interneten: www.mecd.gob.es Trámites y Servicios izeneko atalean, 2018ko martxoaren 22a baino lehen.

Gaztelekuaren programazioa

Martxoa

- Hilak 1, osteguna:** MASTERCHEF: BASERRIKO PANINIAK
- Hilak 2, ostirala, 8, osteguna, eta 28, asteazkena:** EMAKU-MEAREN HILABETE.
- Hilak 3, larunbata:** TAILERRA: BOOKTRAILER
- Hilak 9, ostirala:** TAILERRA: ZABALIK
- Hilak 14, asteazkena:** MASTERCHEF: MILKSHAKE
- Hilak 16, ostirala:** EMANALDIA: ZINEGOAK 2018
- Hilak 17, larunbata, eta 18, igandea:** IRTEERA: GRAFFITIA PORTU ZAHARREAN
- Hilak 20, astearte:** TOPAKETA: ASANBLADA
- Hilak 21, asteazkena:** ESKULANA: MAMUEN KANDELAK
- Hilak 24, larunbata:** IRTEERA: LASERGUNE
- Hilak 25, igandea:** ZINEKLUBA

GauEgun gazteleku

Zinegoak Nazioarteko gaylesbotrans Zinemaldiaren hedapena

Azken 14 urteetan egin den bezala, aurten Udalak Zinegoak Nazioarteko Gaylesbotrans Zinemaldiaren Hedapenarekin kolaboratuko du berriro ere, Udal Gazteria Zerbitzuaren bitartez. Hegoak elkar- teak antolatzen du zinemaldia. Azken edizioetan bezala, aurten ere nerabe eta haurrentzako eduki bereziak prestatu dira. Beraz, aurten, berariazko proiektio batz gainera, Getxoko Hedapenak Algortako GauEgun gaztelekuan emango den nerabeentzako saio berezi bat eta Kukupraka ludotekan izango den ipuin kontalari bat ere ekarriko ditu. Hartara, aurtengo hedapenak, bai formatu bai eduki aldetik, ikusle guztientzat irekia izango da.

Aurtengo programa honako egun hauetan egingo da:

Algortako Kultur Etxea

Martxoaren 15ean, osteguna, 20:00-21:30h., *Porcupine Lake* (Ka-



Porcupine Lake



Tarde para el recreo

nada) luzemetraiaren emanaldia. Jende guztiarentzat irekia.

GauEgun gaztelekua

Martxoaren 16an, ostirala, 18:00-19:00h., *Pria* (Indonesia), *Taylor* (Brasil), *Little Potato* (EEBB), *Tarde para el recreo* (Euskadi) eta *Prince-*

sa de hielo (Espainia) film laburren proiektioa. Bakarrik 11 urtetik 17ra arteko gazteentzat.

Kukupraka ludoteka

Martxoaren 12an, astelehena, 18:00-19:00h., Ipuin-kontalariak, ludotekako bazkide diren umeentzat.

Quetzal ibilbidean oinarritzen da proiektua eta Euskal Herriko hainbat tokitatik ibiliko da **16 eta 17 urteko gazte euskaldunek Euskarabenturan parte hartu ahal izango dute uztailean**

2018ko uztailean Euskal Herri osoko lurraldeak zeharkatuko ditu gazteek osatutako espedizioak, EuskarAbentura elkartearen eskutik. Done Jakue bideak jarraituz eta Unescok izendatutako gizateriaren ondareetatik igaroaz, 16 eta 17 urteko 120 gazte esperientzia hau bizitzeko aukera izango dute.

Ruta Quetzal izandakoan inspiratuta eta ibilbidea

Ruta Quetzal izandakoak inspiratuta sortzen da EuskarAbentura, eta 16 eta 17 urteko gazteei dago zuzenduta, hau da, 2001-2002 urtean jaiotakoei. Espedizio taldea 7 lurraldetako eta diasporako gazteek osatuko dute eta doakoa izango da, euskara dakien edozein gazte parte hartzeko aukera izan dezan, edozein duelarik jatorria.

Elkar- teak azaldutakoaren arabera, espedizioa uztailearen 1ean abiatuko da Mauletik, eta Done Jakue bidearen ibilbide Frantsesa jarraituz, Donibane Garazi eta Iruñatik igaroko da Vianaraino. Bertatik autobus batek Donemiliaga Kukulara eramango ditu abenturazaleak, non orain arte aurkitu diren euskarazko idazki zaharrenak ikusi ahal izango dituzten. Handik Añana Gatzagara igo eta Barnealdeko bidea kontrako norantzan egingo da Iruñeraino. Trenz Baionara igo eta handik Kostaldeko ibilbidetik jarraituko da, Kantauri kostalde guztia zeharkatuz, Bizkaia Zubian amaitzeko, uztailearen 31n. Espedizioa Euskal Herrian kokatzen diren Unescok izendatutako giza-



teriarren ondare guztietatik pasako da: Done Jakue bidea, Santimamiñeko kobazuloak, Ekaingo leizeak eta Bizkaia Zubia.

Izenemateak

Parte hartzeko gazteek motibazio gutun bat eta lan bat bidali beharko dituzte. Lana egiteko hurrengo hiru gai orokor daude aukeran, era librean interpretatu ahal direnak: *Euskara eta zure herria*, *Euskara eta emakumeak*, eta *Euskara eta itsasoa*. Talentu ezberdineko gazteak erakartzeko, elkar- teak bost motako lanak jasoko ditu, hau da, historikoa, literarioa, plastikoa, musikala eta ikus- entzunezkoa. Izena emateko epea martxoaren 18an amaituko da, eta apirilaren 16an argitaratuko da abenturan parte hartuko duten 120

gazteen zerrenda. EuskarAbentura behar soziolin- guistiko batetik sortzen da. *“Euskararen ezagutzak gora egiten du, baina bere erabilerak ez”*, nabarmendu dute antolatzaileek eta horregatik euskararen erabileran eragiteko beharra sentitu dute, gazte jendearen artean batez ere. Horrez gain, EuskarAbenturak baditu beste helburu batzuk: euskal lurraldearen ezagutzan sakontzea, gazte euskaldunen sare bat osatzea eta, antolatzaileen ustez, positiboak diren beste balore transbertsal batzuk transmititzea, hala nola, bizikidetzatza, ingurumenaren errespetua, genero berdintasuna, bizi ohitura osasuntsuak... Eta, batez ere, gazte horiek gero, bakoitza bere inguruan, abenturan zehar jasotako guztiaren zabal- tzaile izatea. Espedizioari eta lanei buruzko informazio gehiago: www.euskarabentura.eus

